

# SANT CLARETEKO ASHRAMEKO KAPERARAKO ALTZARI ETA MATERIALAK ERACHAKULAMEN, TAMIL NADU, INDIA

## KLARETAR MISIOLARIAK

Klaretar Kongregazioa Indian ezartzeko ahaleginak 1952an hasi ziren, baina 1956an eman zuen lehen urratsa garaiko Nagusiak, Aita Peter Schweigerrek, Kongregazioa Indian ezartzeko. Ordutik, Kongregazioa hazi eta zabaldu egin da Indian. Egun 3.000 baino gehiago dira Klaretar Misiolariak.


Indian hiru Klaretar Probintzia daude, bi Ordezkaritza Independente. Indian 94 Erkidego daude 12 Estatutan. 476 apaiz ari dira lanean Indiako eta Zelanda Berriko misioetan.

## ERACHAKULAM - INDIA

**Erachakulam** herria Kottarreko elizbarrutian dago. Hori Kanyakumari barrutian dago, Tamil Nadu estatuan.

**Kapera** berria Sant Claretoko Ashramean (Ashrama Yoga, Meditazioa eta barne hazkuntza zein garapena ahalbidetzen dituzten beste erretiro espiritualak burutzeko lekua da). Ashrama **Erachakulam** herrian eraiki zen bere kokapen, paisaia, klima leun eta landarediarengatik; horrengatik guztiagatik hartu zen leku apropostzat bertan eraikitzeko.

Sant Claretoko Ashramak hainbat ekintza burutzen ditu hiru alor handitan bereiztuta: **espiritualitate** kristaua Indian, **meditazioa** eta Ebanjelioaren **balioen** bidezko lana.



## HELBURUA

Erachakulameko (India) Sant Claretoko Ashrameko Kapera altzariz eta materialez hornitzea, espazioa erabili ahal izateko katekesirako, formaziorako eta otoitzerako.



## ZER BEHAR DUGU?

**Kaperarako** altzari eta materiala: 2.900,00€  
**Guztira:** 2.900,00€



proclade  
yanapay

944 165 950

www.procladeyanapay.org



Informazio Gehiago: <http://bit.ly/PY-Capilla>  
Lagundu nahi baduzu...

**Fiare** ES80 1550 0001 2300 0070 2621  
**CaixaBank** ES34 2100 5306 3821 0093 8170  
**BIZUM** 38313

